



Berriak

Baztertutak - Misericordia-etxea



Otsailaren 22an, ostegunean, Iruñeko Misericordia Etxeko egoiliarrek, "Voces de Oro" CDaren eta Ángela Sancho azoka solidarioaren proiektuetan inplikaturak, bi proiektuekin bildutako 2.100 euroak TAUri eman zizkieten, El Salvadorren adineko pertsonekin garatzen dugun "Baztertutak" lankidetzaproiekturako.



Martxoan, Fausto herriko Atica FM irratiara joan da bi egunetan, "Cofre del Capitán Morgan" izeneko programara; lehen egunean, "Baztertutak" proiektuaren aldeko Misericordia Etxearen ekimenaz hitz egin du, eta bigarren egunean, TAUri buruz hitz egin du.

2023ko kontuen kanpo-auditoria

Hiruhileko honetan iazko kontabilitatea ixten eta kanpoko auditoreei eskatutako dokumentazioa ematen lan egin dugu. Martxoan TAU 2023 ekitaldiko Auditoretza Txostena eta Urteko Kontu Laburtutak jaso ditugu.



Solidaridad y Cooperación
Elkartasuna eta Elkarlana

Informazio solidarioa

TAU 2024 kanpaina

Otsailean TAU 2024 urteko kanpaina abiarazi genuen.

Bere leloa: "Lan duina eta autonomia ekonomikoa"

2030 Agendaren Garapen Jasangarriaren 8. Helburuari dagokionez.



"Desberdintasunak aurrekaririk gabeko mailetara iristen ari dira. Enpleguaren munduko hazkundea % 1,0koa izango da soilik 2023an, 2022an baino erdia baino gutxiago. Munduko langabezia hiru milioi inguru handitzea espero da 2023an, 208 milioira iritsi arte.

Bizitzaren kostuaren krisia pertsona gehiago pobrezia bultzatzen ari da, lan-pobrezia barne. Langile kalteberenen artean, pobrezia absolutuan bizi diren 200 milioi pertsona daude, eta 2.000 milioi ekonomia informalean, non sarritan ez duten legezko eskubiderik edo gizarte-babesik. Panorama global horrek desoreka geografiko handiak ere ezkututzen ditu. Adibidez, errenta baxuko herrialdeetan ez da espero aurten enpleguak pandemiaren aurreko mailak berreskuratzea. Gaur egun langabezia krisiaren aurreko mailen azpitik dagoen eskualdeetan, gure analisiak erakusten du hori batez ere ekonomia informalerako lekualdatzearen ondorio dela, eta horrek, ziurrenik, atzeratu egingo duela langileen arazoak konpondu beharrean. Orduan, zer egin daiteke? Nola berma dezakegu aldaketa-korronte horiek etorkizun bidezkoago, jasangarriago, oparoago eta baketsuago batera eramango gaituztela, Nazio Batuetako estatu kideek 2015ean Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda onartzeko hitz eman zutenean?

Hemen, 8. GJHk berebiziko garrantzia du, hazkunde ekonomiko inklusiboa eta iraunkorra eta enplegu bete eta produktiboa bilatzen baititu, hau da, pertsona guztientzako lan duina. "

Garapenerako eta gizarte eraldaketarako hezkuntza

Gipuzkoako Afrika Behar Beharrezkoa

Urtarrilaren 10ean eta 19an Partzuergoaren bilera: TAU, Proclade eta BLB, 2024an Donostiako Udalari eta GFARI aurkeztu beharreko proiektua planifikatzeko.

Otsailaren, 2024an garatuko ditugun 2023an Donostiako Udalak onartutako programako jarduerak batzuk kudeatu dira.

Gainera, Gipuzkoako *Pluralidad por Africa* Elkarteari lagundu zaio Errenteriko 2024ko deialdira lankidetzaproiektu bat aurkezteko inprimakiak prestatzen. Jarduera hau Gipuzkoako Afrika Behar Beharrezkoa partzuergoaren Donostiako udalak finantziatutako 2022ko proiektuaren “Donostialdeko 2 erakunde afrikar indartzea” ekintzaren barruan kokatzen da.

Ingurumenaren Iraunkortasunerako Sarea pobleziaren aurkako borrokan

Otsailaren 8an taldearen bilera egin zen eta bertan parte hartu zuten: Etiopia Utopia, Egoaizia, ICLI, Enraiza Derechos, Behar Bidasoa eta Zabalketa, TAUz gain.

Honako puntu hauek landu ziren: 1) Sarearen ordezkaritzako txanda; 2) Ikastetxeak; 3) Aste Berdea; 4) Landa-garapenerako praktikei buruzko dokumentua eta 5) Komunikazioa

Ingurumen-jardunbide egokiei buruzko dokumentua ere osatu dugu, lankidetzaproiektuaren bati dagokionez. Gure kasuan, Cochabamabako (Bolivia) Eko-biltzaileen proiektua aukeratu da, TAUk 2016. urteaz geroztik babestua eta Boliviako JPIC (Justizia, Bakea eta Sorkuntzaren Osotasuna) tokiko bazkideak kudeatua.

Nafarroako Afrika Behar Beharrezkoa

Urtarrilaren 8an, San Jorgeko Civivoxetik “*Al Sur de Senegal*” erakusketa jaso genuen, 450 lagunek bisitatu dutena. Urtarrilaren 21ean, 4.862 lagunek bisitatu duten “*Viaje a los mundos de V.R.U.S*” Iruñeko Ziadadelako erakusketa nagusiaren bilketa eta garraioa koordinatu genituen.

Gainera, urtarilean proiektuaren justifikazioak prestatu eta aurkeztu dizkiegu “*Sahararen hegoaldean. Afrika Behar Beharrezkoa 23. edizioa*” programaren babesleei. Programa hau 2023ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean garatu zen.

Otsailaren 21ean Partzuergoko GGKEak bildu ginen 2023an egindako jarduerak ebaluatzeke eta 2024. urte honetako 24. edizioako programatzeko.

Aipatu behar da 2023an Filmategian egindako Afrikako zinemen zikloan eta Ziadadelako Erakusketa nagusian parte-hartzaileen kopurua handitu dela. Burlatan eta Tuteran egindako jarduerak harrera ona ere izan dute.

Martxoan bilera izan genuen Javier Usoz Partzuergoko boluntarioarekin, 2024 Programako jardueren proposamena berrikusteko eta zereginak banatzeko. Horrela, maiatzeko eta udazkenerako pertsonak, datak eta espazioak kudeatzen joan gara. Era berean, martxoaren 13an, Beatriz Lealekin (AEB) “online” bildu ginen Iruñean eta Tuteran afrikar zinemaren proposamena eta datak zehazteko.

GFA 2022 Turismo Proiektuaren topaketa

Ekintza hau, El Salvadorreko “*Turismo arduratsu eta jasangarria, Aguilares udalerrian parte-hartze zuzen eta inklusi-boarekin, III. fasea*” proiektuari lotuta dago, CORDES tokiko bazkideak garatua eta GFAk finantzatua 2022an.

Otsailaren 7an, “*Turismo arduratsua, gobernantza eta herritarren parte-hartzea*” topaketa antolatu eta ospatu genuen Donostiako Deustuko Unibertsitatearen aretoan, 18:00etatik 20:00etara.



“*Hurbileko turismoa eta politika publikoak*” hitzaldi nagusia ikuspegi kritikoetatik turismoan ikertzaile den Ernest Cañadak egin zuen. Ondoren, Marina Abadek moderatutako mahai-inguru bat egin zen, eta bertan, COMITURAK El Salvadorren egindako lanaren esperientzia ezagutarazteaz gain, tokiko beste lau esperientzia ere ezagutarazi ziren (Bizi Biziki, 650 Usurbil Bizi, VISTI-BIZI 2023-2027 Donostia Turismoa eta Gure Marketina), gobernantza turistikoarekin eta herritarren parte-hartzearekin lotutakoak. 30 lagun bertaratu ziren.

Garapenerako

lankidetza

Proiektuak deialdietara aurkeztea

Otsaila

Bilboko Udala. El Salvadorreko “El Paisnal barrutiko Garapen Komunaleko 4 Elkartetako (ADESCOS) 100 emakume eta 100 gizonen antolakuntza-, partaidetza- eta ekonomia-gaitasunak genero-ekitatearekin indartuz” proiektua. **CORDES tokiko bazkidea.**

Martxoa

BFA. Boliviako “Artea eta Kultura: Matxismorik eta genero-indarkeriarik gabeko paradigma berri bat ehuntzen San Pedro de Macha eta Ocurí udalerrietan” proiektua. **IPTK tokiko bazkidea.**

Donostiako udala. “Tokiko garapen ekonomiko jasangarria sustatuz, emakumeen parte-hartzearekin, gobernantzarako eta beren eskubideak gauzatzeko Ocurí udalerrian, II. fasea” proiektua, Bolivian. **IPTK tokiko bazkidea.**

Oñatiko Udala. Belengo “Niño Dios etxeko haurren bizitza hobetzeko energia iraunkorra” proiektua. **ProTerra Sancta tokiko bazkidea.**

2024ko ebazpenak

Iraizoz-Astiz Hermanos Fundazioa. “Maxikoko La 72 Hogar/Refugio enpresaren erantzun humanitarioaren gaitasuna indartzea” proiektua. **Pies Descalzos – Frantziskotarrak tokiko bazkidea**

Justifikazio-txostenak

Urtarrila

Kantabriako Gob. 2022. 26an, El Salvadorreko “Aguilares udalerriko Los Lirios komunitatean saneamendurako, osasunerako eta partaidetzarako eskubidea gauzatzen laguntzea, genero-ikuspegiarekin eta ingurumen-jasangarritasunarekin” proiektuaren azken txostena aurkeztu genuen. **CORDES tokiko bazkidea.**

Iruñeako Udala 2022. 30ean “Eskubide sexualak eta ugalketa-eskubideak indarkeriarik gabe sustatzen” (Bolivia) proiektuaren azken txostena erregistratu genuen. **IPTK tokiko bazkidea.**

Nafarroako Gob. 2023 (sentsibilizazioa). 31n “Sahararen hegoaldean. Afrika Behar Beharrezkoa. 23. edizioa” proiektuaren amaiera txostena erregistratu genuen. **Nafarroako 8 GGKE Partzuergoa.**

Bergarako Udala 2023. 29an, “Viachako (Bolivia) interikaskuntzako gune batetik, ekoizpen eta elikadura osasuntsuko gaitasunetan emakume eta gazteak ahalduztzeko nekazaritzako elikagaien sistemak indartzea” proiektuaren amaierako txostena aurkeztu zen. **Prodiasur tokiko bazkidea.**

Zarauzko udala 2023. Boliviako 23an “Sucre udalerriko hiri-inguruko auzoetako eta landa-komunitateetako emakumeen, nesken eta haurren osasun-baldintzak eta nutrizio-egoera hobetzen” proiektuaren amaiera txostena. **IPTK tokiko bazkidea**

GFA 2021. Boliviako 23an ere “Ckochas udalerrian hezkuntza inklusiboa, osasuna eta genero-ikuspegidun udal-kudeaketa eta ingurumen-iraunkortasuna indartuz, pandemiaren testuinguruan genero-indarkeriari aurre egitea” proiektuaren amaieraren txostena. **IPTK tokiko bazkidea.**

Kantabriako Gob. 2021. 23an “Aguilares, El Paisnal eta San Pablo Tacachico udalerrietako Garapen Komunaleko 8 Elkarteren (ADESCOS) 150 emakume eta 150 gizonen antolaketa-, partaidetza- eta ekonomia-gaitasunak genero-ekitatearekin sendotzen. II. fasea” proiektuaren amaieraren txostena. **CORDES tokiko bazkidea.**

Otsaila

Iruñeako udala (sentsibilizazioa). 6an, “Sahararen hegoaldean. Afrika Behar Beharrezkoa. 23. edizioa” **Nafarroako 8 GGKE Partzuergoa.**

Nafarroako Gob. 2020 (urte anitzekoa). 19an, “Sucre udalerriko 6. eta 7. barrutietan elikadura-subiranotasunerako eta emakumeen ahalduztze ekonomikorako emakumeen elkarte ekonomiko produktibo eta mistoen artikulazio komertziala indartzea eta sendotzea II. FASEA” (Bolivia) proiektuaren amaiera txostena erregistratu genuen. **IPTK tokiko bazkidea**

Bilboko Udala 2022. Martxoaren 26an erregistratu genuen “El Paisnal eta San Pablo Tacachico udalerrietako Garapen Komunaleko 4 Elkartetako (ADESCOS) kide diren 200 pertsonaren (100 emakume eta 100 gizon) antolaketa-, partaidetza- eta ekonomia-gaitasunak genero-ekitatearekin indartzen” proiektuaren amaiera txostena. **CORDES tokiko bazkidea.**



HIRUGARREN SEKTOREA/SAREAK

Nafarroako GGKEen koordinakundea

Urtarrilaren 23an, otsailaren 13an eta martxoaren 13an, **Eragin Politikoaren Batzordearen** hileroko bilera, hainbat gai jorratuz: Koordinakundearen POaren ebaluazioa, Gizarte Erakundearen Plataforma (PES), Nafarroako Gobernuaren deialdien oinarriak berrikustea, etab.

Euskadiko GGKEen Koordinakundea

Gobernu Batzordea. Urtarrilaren 11n hileroko bilera, gai-zerrenda zabalarekin eta askotarikoarekin.

18. Gogoeta jardunaldia Plangintza estrategikorako Arrasaten. Programa: Planaren testuingurua; aurreko saioen emaitzei buruzko azterketa eta talde-lana; Koordinakundeko GGKEen inplikazioari buruzko prozesuak eta balorazioa

Otsailaren 1ean, hileko Lurralde batzarraren bilera. Gaiak: Arrasateko Jardunaldia, Aurrekontua, Euskadiko Gazteak Lankidetzan, Sareen Sarea, genero-politika, korrikan parte hartzea.

Otsailaren 15ean Iñigok, Batzordeko kide gisa, **Lankidetzaren Euskal Lege berria** onartu zen bilkuran parte hartu zuen, **Gasteizko Legebiltzarrean**.

Gipuzkoako eragin politikoa.

Urtarrilaren 24an, 2024ko deialdietan aurkeztu beharreko lankidetzaproiektuetarako GFaren balorazio-irizpideak aztertut ziren.

Gipuzkoako lurralde-batzarra.

urtarrilaren 30ean eta otsailaren 27an. Hainbat gai: Beste mundu batzuk, beste errealitate batzuk, Lankidetz Legea, Erdialdeko Amerika Taldea, Kontseilu Errektorea eta Euskal Kontseilua, etab.

Korrikan parte hartzea.

Iñigok parte hartu zuen, Gipuzkoako ordezkari gisa, Koordinakundeko beste kide batzuekin batera, aurten lehen aldiz Koordinakundeak erosi duen kilometroa korritzen, jarduera horri babesa emateko eta Koordinakundean barne euskara sustatzeko plan berria gauzatzeko urratsak ematen jarraitzeko. Jarduera martxoaren 23an, larunbata, arratsaldeko 20:00etan egin zen Tolosa hiribidean (Antigua).

Arantzazuko Adiskideak

Urtarrilaren 22an Adiskideak Batzarraren bilera izan genuen. Gai-zerrenda:

1. Aurreko akta onartzea.
2. 2023ko balantzea- Jarduerak eta ekonomia.
3. Jardueren proposamena eta 2024ko aurrekontua
4. Arantzazuren etorkizunari eta Elkartearen zereginari buruzko hausnarketarako plangintza.

Grupo Pro Africa- Afrikaren Alde.

Urtarrilaren 15ean bilera birtuala izan genuen GPAko idazkaritza teknikoan (NE-SI, Alboan, Africanistas Manuel Iradier) egon diren 3 erakundeetako ordezkariekin, zereginak eskualdatzeko, 2024tik aurrera TAU, Munduko Begiak eta ACP sartzu baikin.

Munduko Begiak ere bileran izan zen, baina ACPk ezin izan zuen parte hartu.

Urtarrilaren 19an bildu ginen aurten idazkaritza teknikora sartu garen erakundeetako (TAU, Munduko Begiak eta ACP) 3 ordezkariak, eginkizunen banaketa adosteko eta hurrengo urratsetarako koordinatzeko. TAUk GPAko komunikazio-azpitaldearen lidergoa hartuko du, ACPk eragin politikokoa eta Munduko Begiak idazkaritza teknikoko koordinatzaile nagusi gisa geratzeko da. Azpitaldeekin bilera birtualak egitea erabaki zen otsailaren amaieran, martxoan aurreko hurrengo bilera orokorra egin aurretik.

Otsailean, taldearen komunikazio-estrategia berrikusi zen, GParen komunikazio-jardura bultzatzen saiatzeko, 2024an dagokigun komunikazio-taldeko arduradun gisa.

Komunikazio azpitaldearen bilera bat ere izan genuen otsailaren 26an, non komunikazio estrategia errepasatu genuen eta zereginak banatu ziren. Afrikako Eguneko jarduerak maiatzaren prestatzen hasi ginen, eta ondoren martxoaren 21eko aurreko bilera orokorrean jorratu genituen.

Zarauzko Lankidetz Kontseilua

Martxoaren 13an, Iñigok Zarauzko Lankidetz Kontseiluan parte hartu zuen, eta honako gai-zerrenda hau izan zuen: 1) Aurreko akta onartzea. 2) 2023ko lankidetzamemoria. 3) 2024ko aurrekontuak. 4) 2024ko dirulaguntzen deialdiak. 5) Lankidetz-elkarteen erregistroak. 6) Elkarteen aldetik: agintaldi honetarako asmoak eta kontseiluaren balorazioa.

Arrazakeriaren aurkako martxa

Martxoaren 17an Gipuzkoako egutegiko hitzordu klasikotako bat ospatu zen: Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako urteroko Martxa, SOS Arrazakeria Gipuzkoa, Medici Mundi Gipuzkoa eta Euskadiko GGKEen Koordinakundeak antolatua. Arrazagatiko Diskriminazioa Ezabatzeko Nazioarteko Egunaren arrazoia, martxoaren 21ekoa, XXVII. edizioa izan da aurten.



Aurtengo leloa **“Bihurgune arriskutsua! Norabideak axola du”**. Eskuin muturrerako bira eta eskrupulurik gabeko, elkartasunik gabeko eta bidegabeko gizartea sortzeko duen arriskua salatzen. **Beren burua arrazistatzat jotzen ez duten pertsonen diskurtso xenofoboa** hartzeko diskurtso estigmatizatzailearen hedapenaz ohartarazteko.



Solidaridad y Cooperación
Elkartasuna eta Elkarlana

Berriak

Arantzazuko hilabeteko aldizkaria

Aldizkarian kolaboratzen jarraitzen dugu: apirilean, "TAU 2023 jardueren memoria" artikulua; maiatzean, "Kurba arriskutsua. norabideak inporta du"; ekainean, "Pertsona Migratzaileen eta/edo Errefuxiatuen RFMedaren 1. topaketa Marrakech-Marokon".



Irratsaioak

Maiatzaren 25ean, Iñigo Cadena Ser irrati-katean elkarriketatu zuten, Gipuzkoako Afrika Behar beharrezkoa Partzuergoari eta udaberriko jarduera-programari buruz hitz egiteko.

Maiatzaren 31n Oñati Irratiak ere elkarriketatu zuen, ekainaren 1ean egin zen "Arantzazu Afrikarekiko topaleku" jardunaldiagatik.

Boluntariotza

Apirilaren 19an, Donostiako Deustuko ADE graduko bi ikasle Donostiako TAUren egoitza izan ziren Iñigorekin, GAL egiteko datuak biltzeko, Boliviako IPTKren CERPIren bideragarritasun eta finantzazio plan bat egiteko asmoz.

Maiatzean, Marokon boluntariotza egiteko interesa duen pertsona baten eskariari arrera eman genion Iruñean; herrialdean dugun presentziari eta gaur egungo proiektuei buruzko informazioa eman genion, baita udan lankidetzan aritzeko eta boluntariotza egiteko dauden aukerei ere.

Informazio solidarioa

TAU 2023ko jardueren memoria

2023ko Jardueren Memoria ikus dezakezue TAUren webgunean. Bertan, urtean zehar egindako guztia islatzen da zehatzago, fundazio gisa ditugun energiak eta gaitasunak jokoan jartzen jarraitzeko, eta mundu bidezkoago, justuagoa eta gizatiarrago bat eraikitzen ahalegintzen jarraitzeko. Mundu horretan, pertsona guztiek duintasunez bizitzeko duten eskubidea aitortuta ikusi ahal izango dute eta integralki garatu ahal izango dira, nahiz eta Hegoaldean guk hemen, Iparraldean, ditugunak baino baliabide eta pribilegio gutxiago dituzten lekuetan jaio.

BOLIVIA, ECUADOR, EL SALVADOR, MAROKO, MEXIKO ETA PALESTINAKO pertsona eta komunitateekin batera Elkartasuna eta Lankidetzak, praktikatzen dugu, herrialde bakoitzeko tokiko bazkideengandik jasotako proposamenak elkarrekin landuz. Egunerokoan lan egiten tematuta, adoregabatu gabe, eta gure aletxo eman nahian, mundu bidezkoago eta anaitasunezkoago baten eraikuntzan; **mundu horretan, guztion Ongia ikusaraziko da giza familia osoarentzat**, eta jakitun izango gara Elkartasuna eta Lankidetzak prozesu jarraitua dela. Izan ere, oraindik ere pentsatzen dugu, hemen Iparraldean hain ondo bizi garen gure erosotasun sozialeko eremuetan ez garela bakarrik geratu behar; gurea ez dena partekatu eta itzuli behar diegu, duintasunez bizitzeko eta osorik garatzeko oinarritzko eskubiderik ez dutenei.

Hegoaldeko Lankidetzak Proiektuak 33. Horietatik **proiektu berriak 20:** GARAPEN EKONOMIKOKOAK: 5; GIZARTE ZIBILA INDARTZEKOAK: 1; LAGUNTZA HUMANITARIOKOAK: 2; GENEROKOAK: 5; OSASUNEKOAK: 5; HEZKUNTZAKOAK ETA PRESTAKUNTZAKOAK: 2.

Aurreko urteetatik jarraitzen duten proiektuak **13:** GARAPEN EKONOMIKOKOAK: 4; GIZARTE ZIBILA INDARTZEKOAK: 3; GENEROKOAK: 4; OSASUNEKOAK: 2

Proiektuak Iparraldean: Sentsibilizazioa: Nafarroan eta Gipuzkoan Afrika behar beharrezkoa Partzuergoetan eta TAUko Bizkaia, Gipuzkoa eta Kantabriaren egoitzetan egindakoak. **8.451 pertsonak parte hartu dute.**

Mobilizazioan: 295 pertsonak parte hartu dute.

Hezkuntza: hezkuntza formalaren eremuan. **393 pertsonak parte hartu dute.**

3 blokeetan guztira parte hartu dutenak: 9.139 pertsona.

2023ko ekitaldiko **kontu argiak: Diru-sarrerak guztira: 1.419.438€.** Do-haintza pribatuak: 280.906€; diru-laguntza publikoak: 1.138.532€

Gastuak guztira: 1.417.140€ Gastuak x arloak: **Nazioarteko lankidetzak %90,73; Komunikazioa %2,60; eta Kudeaketa %6,67.** Sektorekako lankidetzak-gastuak: **Hezkuntza %9,35; Garapen sozio-ekonomikoa %27,48; Gizarte zibila indartzea %0,80; Laguntza humanitarioa %3,53; Generoa %39,48 eta Osasuna %19,97.**

Garapenerako Hezkuntza eta Gizarte Eraldaketa

Nafarroako Afrika behar beharrezkoa Partzuergoa

Maiatzaren 25ean, Antsoainen, Afrikar kontinentearen nazioarteko eguna ospatu genuen eta maiatzaren 30ean Rosa Mororen *"Africa, El genocidio que no cesa"* liburuaren aurkezpena izan genuen Iruñeko Civivox Condestable aretoan.

Ekainaren 3an Juan Luis Rodríguez, *"Las Tres Fronteras"* erakusketaren komisarioa, izan genuen Iruñean, aretoa ikusi eta aurtengo jardunaldien erakusketa nagusia planifikatzen joateko. Oraingo honetan (salbuespen gisa) Civivox Condestable Erakusketa aretoan izango da.

Gipuzkoako Afrika behar beharrezkoa Partzuergoa

Hiruhileko honetan honako jarduera hauek gauzatu dira:

* 2023 Programa:

- Apirilaren 10ean. *"Españul"*: Lamine Thior -ren bazarriketa Donostiako Antzoki Zaharrean.

- Apirilaren 25a. Irakurketa kluba, Nathacha Appanahen (Maurizio uhartea) *"Trópico de la violencia"* idazlanarekin.

- Maiatzak 21: Amil Shivjiren *"Vuta N 'Kuvute"* zinema foruma, Trueba zineman (Donostia).

- Maiatzak 24: *"Afrikando"* musika eta dantza ikuskitzuna: Baobab Danza, Rawan Diallo eta Afrika Bibang. Intxaurrendoko Kultur Etxean (Donostia).

- Maiatzak 25: Futbol txapelketa, Pluralidad por África elkartearekin elkarlanean. Matigotxotegi futbol zelaietan (Donostia).

- Maiatzak 23: Ellie Foubiren *"Mon père, le diable"* (Nire aita deabrua) zine foruma, Trueba zineman (Donostia).

- Maiatzak 29: Afrikako oihalekin egindako jostuntza-aren bidezko arte-sorkuntzako tailer-hausnarketa. Soki Madiel Kibangouk dinamizatua. Amara coworkingean



(Donostia).

- Maiatzak 30: Irakurketa kluba, Scholastique Mukasonga *"Nuestra señora del Nilo"*.

- Ekainak 3tik 28ra: *"Zer gertatzen da Ruandan? Galdetu bizikletei"* argazki-erakusketa, Donostiako Oken-do Kultur-Etxean.

* 2024 Programa: Ekainaren 1ean, larunbata, Gandiaga Topagunean (Arantzazulab) *"Arantzazu Afrikarekiko topaleku"* jardunaldia ospatu dugu. Arantzazuko Adiskideak elkarteak eta Partzuergoak antolatu dute jardunaldia.

Hasteko, Martinika uhartean filmatutako Sarah Malleonen *"Sirque"* film laburra proiektatu dugu. Film laburraren ondoren, Sani Ladan irakasle eta nazioarteko harremanen ikertzaile eta jatorri kamerundarreko arrazakeriaren aurkako aktibistaren hitzaldia,



Ingurumen Iraunkortasuneko Sarea Pobreziaren Aurkako Borrokan

Sare horretako kide garen aldetik, 2024ko Bioterra Azokan parte hartu dugu, ekainaren 7tik 9ra, Irungo Ficoban. Honako ekintzekin: informazio-stand bat, Sareko proiektuen erakusketa birtuala eta ekainaren 9an Stolen-Fish dokumentalarekin egindako zineforuma.

Ekainaren 18an, urte batzuk lankidetzan eta prestakuntza-saioak egiten daramatzagun, Easo Ikastetxe Politeknikoarekin bildu ginen, 2024-25 ikasturteko hezkuntza-erronkaren programazioa ezartzeko.

Tokiko ikuspegi globala duten jarduerak lankidetzaproiektuetan

2022ko BFaren *"Pocoata, Macha eta Colquechaca udalerrietan eskola-indarkeriarik eta sexu-diskriminaziorik gabeko komunitateak sustatuz, Potosí (Bolivia)*

- III. fasea" proiektuan; maiatzaren 14an 2. topaketa birtuala izan genuen IPTKrekin eta hainbat hezkuntza-unitatetako ordezkariekin. Bizkaitik, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko (EGK) kideek parte hartu zuen.

Garapenerako Lankidetzak

Proiektuak formulatzea

GFA. Maiatzaren 24an, Gipuzkoako Afrika behar beharrezkoa 2024-2025 proiektua aurkeztu zen Gizarte Eraldaketa Hezkuntzaren deialdira.

Nafarroako Gob. GEH. Ekainaren 3an, "Afrika behar beharrezkoa Nafarroa" partzuergoko buru gisa, "Sahararen hegoaldean. Afrika behar beharrezkoa 24. edizioa" proiektuarentzat diru-laguntza eskaria erregistratu genuen

Iruñeko udala. GEH. Ekainaren 3an, "Afrika behar beharrezkoa Nafarroa" partzuergoko buru gisa, "Sahararen hegoaldean. Afrika behar beharrezkoa 24. edizioa" proiektuarentzat diru-laguntza eskaria erregistratu genuen

Kantabriako Gob. Apirilaren 22an erregistratu genuen "La Libertad Norte udalerriko (El Salvador) San Pablo Tacachico barrutiko Garapen Komunaleko 4 Elkartetako (ADESCOS) kide diren 200 pertsonaren (100 emakume eta 100 gizon) antolaketa-, partaidetza- eta ekonomia-gaitasunak genero-ekitatearekin indartzen" proiekturako eskaera. **CORDES tokiko bazkidea**

Bergarako udala. Apirilaren 15ean "Belengo (Palestina) Niño Dios etxeko haurren bizitza hobetzeko energia iraunkorra" proiektua aurkeztu zen. **Pro Terra Sancta tokiko bazkidea (PTS).**

Eusko Jaurlaritza (eLankidetzak). Maiatzaren 8an 2 proiektu erregistratu dira

1. proiektua: "Aguilares eta El Paisnaleko emakume ahaldunduak, beren eskubideez baliatzen dira, beren elikadura-subiranotasuna nekazaritza-ikuspegi ekologikoarekin indartuz (El Salvador)". **CORDES tokiko bazkidea.**

2. proiektua: "Emakume indigena nekazari ahaldundu eta antolatuek tokiko garapenean eta ingurumen-erresilientzian parte hartzen dute Ravelo udalerrian, Potosí, 2. fasea (Bolivia)". **IPTK tokiko bazkidea.**

Irungo udala. . Maiatzaren 13an erregistratu genuen "Tokiko garapen ekonomiko jasangarria sustatuz emakumeen partaidetzarekin, gobernatarako eta beren eskubideak gauzatzeko Ocurí udalerrian (Bolivia). II. fasea". **IPTK tokiko bazkidea.**

Nafarroako Gob. Lankidetzak. Ekainaren 21ean erregistratu da proiektuen deialdira aurkeztu beharreko hiru ekimenetako lehena. 1. proiektua: "Boliviako San Borja udalerrian elikagaien segurtasunerako eta ingurumenaren babesarako genero-ikuspegia duten baliabide erresilienteak garatzea". **CECASEM tokiko bazkidea**

Ebazpenak

Oñatiko udala. "Belengo Niño Dios etxeko haurren bizitza hobetzeko energia jasangarria" proiektua. **Pro Terra Sancta tokiko bazkidea. Diru-laguntza 8.585€.**

Bergarako udala. "Belengo (Palestina) Niño Dios etxeko haurren bizitza hobetzeko energia jasangarria" proiektua. **Pro Terra Sancta tokiko bazkidea (LPS). Dirulaguntza 5.050€**

Bilboko udala. "El Paisnal barrutiko San Salvador Norte udalerriko (El Salvador) 4 Komunitate Garapenerako Elkartetan (ADESCOS) parte hartzen duten 200 pertsonaren (100 emakume eta 100 gizon) antolaketa-, partaidetza- eta ekonomia-gaitasunak genero-ekitatearekin indartuz" proiektua. **Tokiko bazkidea CORDES. Diru-laguntza 69.994€**

Iruñeko udala – Laguntza humanitarioa. "Belengo etxe kalteberak birgaitzea". **Diru-laguntza 15.000€**

Justifikazio-txostenak

Azken txostena Oñatiko eta Bergarako Udalak 2023. Proiektua: "Nekazaritzako elikagaien sistemak indartzea, Viachako (Bolivia) inter hezkuntza gunen batetik emakumeak eta gazteak ekoizpen eta elikadura osasuntsuan ahaldundutako". **Prodiasur tokiko bazkidea.**

Nafarroako gobernuko ebaluazio eta auditoriako azken txostena (Urte anitzekoa 2020). Apirilaren 3an erregistratu genuen "Sucre udalerriko 6. eta 7. barrutietan elikadura-subiranotasunerako eta emakumeen ahaldundutze ekonomikorako emakumeen elkarte ekonomiko produktibo eta mistoen merkataritza-artikulazioa sendotzea eta bermatzea. II. FASEA. (Bolivia)" izeneko 3 urteko programaren kanpo-ebaluazioko eta kontu-auditoretzako txostena. **IPTK tokiko bazkidea.**

Iruñeko udala. Apirilaren 3an erregistratu genuen Udala 2022an finantzaturako "Indarkeriarik gabeko sexu- eta ugalketa-eskubideak sustatzea" (Bolivia) proiektuaren kanpo-ebaluazioaren txostena. **IPTK tokiko bazkidea.**

Gob. Vasco (AV Eusko Jaurlaritza (eLankidetzak). Ekainaren 11n erregistratu genuen "Ravelo, Potosí (Bolivia) emakume nekazarien ahaldundutzea bultzatzen" 2022 lankidetzak proiektuaren 2.IPTK tokiko bazkidea.



HIRUGARREN SEKTOREA/SAREAK

Nafarroako GGKEen koordinakundea

Eragin politikoko taldea. Hiruhilekoan zehar taldearen hainbat bilera izan ditugu, eta bertan hainbat estrategia garatu dira Nafarroako erakunde publikoetan eragiteko eta hainbat gune eta jarduera ebaluatzeko. Nafarroako Gobernuari dagokionez, Batzordearen eta Lehendakaritzaren arteko bilera prestatu zen; Lankidetzaren Sanitarioko taldearen lana eta Lehendakaritzaren Saharara egindako bidaiaren ebaluazioa ere partekatu eta baloratu dira; gainera, Nafarroako Gazteriaren Institutuarekin bilera egin zen edo Kubarentzako laguntza humanitarioaren mozioa prestatu zen.

Ohiko Batzar Orokorra. Maiatzaren 9an, Nafarroako GGKEen Koordinakundearen Ohiko Batzarra egin zen, 34 GGKEk parte hartuta.

Batzarrak azken urtean lortutakoa ebaluatzeko eta etorkizun hurbilera begira jartzeko balio izan zuen. 2023ko jardueren eta memoria ekonomikoak onartu ziren, bai eta aurtengo jarduera-plana eta aurrekontua ere.

2021-25 Plan Estrategikoaren tarteko ebaluazioaren ondorio nagusiak azaldu ziren. Bertan adierazi zenez, ebaluazioaren egunera arte proposatutako jomugen % 82 martxan daude, eta proposatutako emaitza kuantitatiboen % 100 lortzen ari da.

Gaur egun 48 GGKE bazkidek osatzen dute Koordinakundea. Koordinakundeko Batzordeko karguak ere berritu ziren.

Euskadiko GGKEen Koordinakundea



Gipuzkoako Lurralde Batzarra. Hiruhileko honetan Gipuzkoako Lurralde Batzarretan parte hartu dugu, eta bertan Koordinakundeko lantaldeen gaiak partekatu ditugu: eragin politikoa, Eraldaketa sozialerako hezkuntza, Gobernu Batzordearen informazioa...

Koordinakundearen Zuzendaritza-batzordea. Iñigo Gipuzkoako lurralde ordezkaria da bertan, eta hilabete hauetako barne lan bileretan parte hartu du, hainbat gai jorratuz: ohiko batzar orokorraren prestaketa, Koordinakundeko teknikarien lan baldintzak datorren urterako, tresnei buruzko estrategia, Batzordeko kidearen ordezkaritza parekiderako eztabaida eta konponbideak, GGKE berrien sarreren batzordea...

Ohiko Batzar Orokorra. Bilbon egin zen maiatzaren 30ean, eta bertan 2023ko kudeaketa- eta ekonomia-txostena eta 2024ko

plangintza eta aurrekontua onartu ziren. Eta beste gai batzuk ere bai, hala nola lankidetzaren eta hezkuntza-tresna berriei buruzko hausnarketa kolektiborako ibilbide-orria baliozkotzea, lankidetzaren eta elkartasun-lege berria onartzearen esparruan.

Finantza-lankidetzari buruzko jardunaldia. Ekainaren 20an Iñigo TAUko patroia Judith Peredarekin batera parte hartu zuen Bilboko finantza-lankidetzari buruzko jardunaldian, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak eta eLankidetzak antolatuta.

GAP-Afrikaren Aldeko Taldea

Maiatzean, Afrikaren Aldeko taldearen komunikazio-lana koordinatu zen Afrikaren Egunaren inguruan (maiatzaren 25a). Ko-




munikabideei prentsa-ohar bat prestatu eta banatu zitzaion, Afrikaren Eguna lurraldeetako ospakizunen inguruan egindako jarduera guztiekin, eta Gloria Dada ikertzaile zientifiko nigeriarra egindako iritzi-artikulu bat, emakumeen talentu ikertzaileari eta osasun globalari egindako ekarpenari buruzkoa ere gizarteratu genuen.

Ekainaren 5ean, Begoñak idazkaritza teknikoaren bilera birtuala izan zuen ACPP eta Munduko Begiak-ekin, ekainaren 13an Gasteizen egindako aurrez aurreko bilera orokorra prestatzeko eta "Voces Africanas III" mahai-inguruaren antolaketa, Afrikaren Egunaren balorazio orokorra edo Sarearen barruko kuoten onarpena zehazteko.

Arantzazuko Adiskideak

Hainbat bilera izan ditugu hainbat gai lantzeko: Arantzazuko Adiskideak elkartearen onura publikokoa dela aitortzearen komenigarritasuna eta prozedura, Arantzazuri buruzko dokumentala zabaltzea, "Arantzazu Afrikarekiko topaleku" jardunaldia prestatzea eta zabaltzea. Eta ekainaren 1ean, larunbata, aipatutako jardunaldi horrekin batera, elkartearen ohiko batzar orokorra ere ospatu genuen.






Solidaridad y Cooperación
Elkartasuna eta Elkarlana

Berriak

REAS NAVARRA

Nafarroako Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareko kide gisa, abuztuan, TAUfundazioaren Auditoria Soziala egin genuen, REASeko Idazkaritza Teknikoaren arduradunaren laguntzarekin.

ARANTZAZUKO ADISKIDEAK



Uztailean, Pello Sarasuarekin (idazkari teknikoa) lan egin da Arantzazuko Adiskideak Elkartearen onura publikoaren aitortpena eskatzeko memoria egiteko.

Era berean, Eusko Jaurlaritzari Arantzazuko Liburutegirako dirulaguntzaren erregistroa egiten lagundu dugu; eskaera uztailaren 17an aurkeztu genuen.



